



Kutxabank

Erreferenteak gara ekonomiaren,
gizartearen eta ingurumenaren
jasangarritasunari dagokionez 2020ko



Laburpena

1. Kutxabank **finantza-erakunde nagusia** da lanean ari den lurraldetan eta horietan **konpromiso oso handia** erakusten du **ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapenari dagokionez.**
2. **Kutxabank Taldearen jarduerak, bere jatorrizko lurraldeetan,** zuzenean eta zeharka, **BPGaren %12, enpleguaren %13 edo, BPGrekin alderatuta, zergen %4,5** inguru sortzen lagundu du. Gainera, estatuan ere eragin nabarmena dauka.
3. **Gero eta emaitza egonkorrago eta altuagoak** sortzen ari gara eta Fundazioek horien etekinak gizartera **itzultzen dituzte Gizarte Ekintzaren bidez.** Eta lanean ari gara Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren bidez **gure eragina ahal beste handitzeko** eta NBEren Garapen Jasangarriko Helburuak (17etatik 13) betetzeko.

Edukien aurkibidea

1. **Erakunde-eredu propioa** dauka eta etekinen %100 gizarteari itzultzen dio.
2. **Konpromisoa** lurraldearekin, herritarrekin, enpresekin, erakundeekin eta abarrekin.
3. Negozio-eredu **jasangarria**, ESG irizpideekin bat egiten duena.
4. Ikuskatzaileek, arauemaileek eta inbertitzaileek **aitortutako** eredua.



Kutxabank

Kutxabankek erakunde-eredu
propioa dauka



Kutxabankek erakunde-eredu propioa dauka. Bertan, akziodunen %100 banku-fundazioak dira.

170 urtez ibili da balio ekonomiko eta soziala sortzen

Akziodunen banaketa

BBK Fundazioa
Gizarte Eginkizuna

%57

Kutxa Fundazioa
Gizarte Eginkizuna

%32

Vital Fundazioa
Gizarte Eginkizuna

%11

Banku-jarduera

Euskadin, Kutxabank markaz gain, antzinako Aurrezki Kutxen markak mantentzen dira.

Kutxabank, Cajasur Bankuaren %100aren jabea da.

cajasur 

Finantza-jarduera

Banku-jarduera Cajasur markaren bidez egiten da eta, gainera, badago Cajasur Fundazioa ere.

Cajasur Fundazioa
Gizarte-eginkizuna

KUTXABANK EREDUA

Akziodunen eredua

Bankuak	Kreditu-kooperatibak	Aurrezki-kutxak / Fundazioak	
Etekinak akziodunei ordaintzera edo erreserbetara bideratzen dira.	Etekinak kooperatibistei ordaintzera, Hezkuntzarako eta Kooperatiba Sustatzeko Funtsa osatzera edo erreserbak eratzeraz bideratzen dira.	Jabetza %100	Jabetza partziala
		Etekinak gizarte-ekintzara edo erreserbetara bideratzen dira.	Irabaziak gizarte-ekintzara, gainerako akziodunak ordaintzera edo erreserbetara bideratzen dira.

Erakunde-kopurua

52	62	4	4
Krisiaren aurretik: 66	Krisiaren aurretik: 81	Krisiaren aurretik: 46	

Erakunde nagusiak

• Santander • BBVA • Sabadell • Bankinter	• Cajamar • Laboral kutxa • Bantierra • Cajalmendralejo • Caja rural de Navarra	• Kutxabank • Ibercaja • Caixa Ontiyent • Caixa Pollença	• CaixaBank • Bankia • Liberbank • Unicaja
---	---	---	--

Bere kudeaketa zuhurrari esker eredu horri eutsi ahal izango dion finantza-erakunde handi bakarra da.

Iturria: geuk egina. Bankiak fundazioak dauzka bere akziodunen artean BMNrekin bat egin ondoren.

Dibidenduen %100 gizarte arloko jardueretara bideratuta dago

Akziodunak

Fundazio Akziodunen Ildo Estrategikoak

BBK Fundazioa

- Heldutasun aktiboa.
- Familia eta haurtzaroa.
- Trebakuntza eta enplegua sustatzea.
- Mendekotasuna eta desgaitasuna.
- Eraginkortasuna, hurbiltasuna eta "errentagarritasun soziala".
- Hirugarren sektorea indartzea.
- Kultura, sormena eta berrikuntza.

Kutxa Fundazioa

- Gipuzkoako enpresa estrategikoetan parte hartzea.
- Berezko gizarte-jarduera garatzea.
- Gizarte-jarduera sustatzea lankidetzan.
- Kutxa Ekogunea.
- Tabakalera.
- Kubo-Kutxa aretoa.
- Eureka! Museoa.
- Onkologikoa Fundazioa.

Vital Fundazioa

- Arabako koadrilen proiektua.
- Enplegua eta laneratzea.
- Ekintzailatza, ikerketa eta berrikuntza.
- Balioetan hezteak.
- Arabako kultura-ehuna eta kirola.
- Ingurumenarekiko eta Arabako kultura-ondarearekiko konpromisoa.

Iturria: barne-informazioa, fundazio akziodunen plan estrategikoak (BBK Fundazioa, Kutxa Fundazioa eta Vital Fundazioa).

800 milioi euro baino gehiago dibidenduetan 2012az geroztik.



Iturria: geuk egina. Banca Civicaren kasuan (Cajasol, Nafarroako Kutxa, Caja Canarias, Caja Burgos) Caixabankek itzuli egin zituen diru laguntza publikoak, hura erositako ondoren.

Lehenengoak gara finantza-erakundeek laguntza publikorik jaso ez duten Autonomia Erkidego bakarrean.

Finantza-krisian laguntza publikoak jaso dituzten erakundeek kopurua Autonomia Erkidegoen arabera.

Andaluzia	3	Madril	1
Aragoi	2	Murtzia	1
Asturias	1	Valentziar Komunitatea	2
Balear Uharteak	1	Gaztela eta Leon	6
Kanariak	2	Katalunia	7
Kantabria	1	Errioxa	1
Gaztela-Mantxa	1	Nafarroa	1
Extremadura	2	Euskadi	0
Galizia	3		

ESG (Ingurumena, Gizartea, Gobernantza) erronkaren aldeko konpromisoa banku-negozioa ulertzeko darabilgun modua osatzen du.




ENVIRONMENTAL INGURUMENA

CO2 emisioak
Gertakizun klimatikoak
Kutsadura
Jasangarritasuna
Ekonomia zirkularra



SOCIAL GIZARTEA

Aniztasuna
Giza eskubideak
Segurtasuna
Kontsumitzaileak
Berdintasuna
Hizkuntza-babesa



GOVERNANCE GOBERNANTZA

Estrategia
Arriskuen kudeaketa
Gardentasuna
Soldata Politikak
Lan Harremanak

**Konpromisoa lurraldearekin,
herritarrekin, enpresekin eta
herri-erakundeekin.
Konpromisoa Euskadirekin
Iturria: geuk egina.**

... gure Misio, Ikuspegi eta Balioetan islatuta agertzen da

Misioa	Ikuspegia	Balioak	
Kutxabankek jasangarritasunean oinarritutako irizpideekin sortzen du balioa ekonomian eta gizartean. Horretarako, kalitatezko finantza-zerbitzu aurreratu eta berritzaileak eskaintzen ditu.	Erreferentziazko Banka Komertziala 	Gertutasuna 	 Gizartea  Gobernantza  Ingurumena
	Talde sendoa  	Erraztasuna 	
	Gizartearekin arduratsuak   	Gardentasuna 	
	Konfiantza  	Berrikuntza	
		Zuhurtzia eta Kaudimena	
		Konpromisoa   	
		Jasangarritasuna 	

Iturria: geuk egina, 2019-2021 Plan Estrategikoa.

Kutxabank

Gure lurraldearen alde
gaude






Euskadin, finantza-erakunde guztien artean, presentzia handiena daukagu eta herritarrek finantza-zerbitzuak eskura edukitzea bermatzen dugu.

Euskadiko landa-eremuetan oinarrizko banka-zerbitzuak emateko konpromisorik handiena duen finantza-erakundea Kutxabank da.

Kutxabanken bulego-sarearen banaketa
(2019ko abendua)



Iturria: barne-informazioa.

Biztanleak	Kutxabank bulegoen kopurua	KB sarearen kuota KB dagoen udalerrietan
<1.000	17	%95
>1.000<2.500	37	%75
>2.500<5.000	25	%30
>5.000<10.000	33	%23
>10.000<25.000	49	%20
>25.000<50.000	38	%28
>50.000<100.000	15	%25
>100.000	110	%22
GUZTIRA	324	%26

Kutxabank

Herritarren alde



Herritarren alde lan egiten dugu: finantza arloko prestakuntza eskaintzen diegu, gure zerbitzuak erabiltzeko erraztasunak ematen dizkiegu eta elkartegintza sustatzen dugu.



Aniztasun funtzionala dutenen alde

- Bulego eta kutzazain automatiko gehienak desgaitasunen bat dutenentzat egokituta daude.
- Hornitzaileen politikan kontuan hartzen dugu.
- Hirugarren sektoreko elkarte eta fundazioekin lankidetzan gaude.



Elkarteen eta fundazioen laguntzak



- Urtean 7 milioi euro baino gehiago, gizarte, kultura, kirol eta enpresa arloko elkarte zein fundazioei bideratuta.
- 500 proiektu baino gehiago lankidetzan 2019an.



Hizkuntza-politika


- Arreta hizkuntza koofizial guztietan bermatzen dugu gure zerbitzuak eskaintzen diren lekuetan.
- Euskara sustatzeko hitzarmen espezifikoak ditugu.



Finantza-hezkuntza

- Oinarrizko finantza-trebetasunei buruzko prestakuntza-programa, DBHko eta LHko ikasleentzat. Jolasteko eta prestakuntza jasotzeko saioak, euskaraz nahiz gaztelaniaz.
- 58 ikastetxek eta 2.300 ikasletik gora parte hartu zuten 2019an. 2013tik, 7.100 ikasletik gora ibili dira gure saioetan.
- Unitate espezializatuak aseguruari eta bankuari buruzko prestakuntza ematen dute.

Enpleguaren gaineko eragina



Iturria: Ceprede enplegu-kopuruari buruzko datuak.

... gure langileen eta enpleguaren alde, enpresa eta finantza arloko jarduerari esker

Kutxabankek 120.000 lanposturi eusten laguntzen du Euskadin

Kutxabank
Enpresen alde





Gure bezeroen jarduera finantzatzeko dugu.
Gainera, Euskadirentzat garrantzia handia
duten proiektuetan parte hartzen dugu...

Enpresa-proiektuen finantzaketa. Enplegua sortu eta inguruneari balioa ematen dioten ad hoc enpresa autogestionatuak sortzen ditugu, esate baterako: Bilboaldeko hegoaldeko saihezbidea (Supersur), Arabako Bideak-Vías de Álava, Gerediaga-Elorrioko erradiala...

Enpresa traktoreetan parte hartzen dugu, finantzaketarekin batera, izan ere, parte-hartze hori enpresa-sareari laguntzeko tresna garrantzitsua da. Oraingo egoera zaila bada ere, Kutxabankek euskal ekonomia sustatzen duten proiektu-sorta garrantzitsuan parte hartzen du. Hala, proiektu horiei eustea eta aberastasuna zein enplegua sortzea sustatzen du. Aipatzekoak dira garrantzitsuenen artean, Iberdrola, Petronor, CAF, Euskaltel edo Ingeteam enpresetan daukagun partaidetza.

Industria-partaidetzarako funtsak. EKARPEN Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta Kutxabanken arten sortutako industria-partaidetzarako funtsak enpresen kapital sozialean parte hartzen du, haien kudeaketan sartu gabe. Horrela, Euskadiko enpresa industrial nagusien erabakigunea bertan egotea sustatzen dugu, horrek bertako Enpresa Txiki eta Ertaintentzat dauzkan ondorio positiboekin. Kutxabankek EKARPEN funtsaren %44 dauka.

Izen handiko proiektuak babesten ditugu. Kutxabankek izen handiko proiektu askoren kapitalean ere parte hartzen du. Proiektu horiek beren helburu sozialaren bidez balioa sortzeaz gain, ekonomiaren hainbat sektore sustatzen dituzte: trenbide-industria, logistika, eraikuntza, garraioa, etab. Adibide gisa, honako hauek aipa ditzakegu: Gasteizko Garraio Zentroa-CTV, Arasur, Trenen alokairua, Metroen alokairua.




... Eta epe luzeko harremana dugu gure hornitzaileekin, ahal dela tokian tokikoekin

Hornitzaileak

- Gehien bat tokiko hornitzaileei erostea.
- Erosketa jasangarriko politikak.
- Giza eskubideak errespetatzeari, ingurumena babesteari eta ustelkeriaren aurka egiteari buruzko Munduko Itunaren printzipioak gure hornitzaile gehienekin betetzeko hitzarmenak egin ditugu.

215 milioi euro, 2019an, 5.700 euskal hornitzaile bakoitzari ordaintzeko.

Ordaintzeko batez besteko epea < 15 egun

BPGaren gaineko eragina (milioi eurotan)

Horri esker, enpresa nagusietako bat gara ekonomiarako balio erantsiaren sorreran eta hari eusteko dinamiketan

Kutxabanke Euskadiko BPGaren %1,3 sortzen du eta haren %12ri inguru eusten laguntzen du

Kutxabank


Herri-administrazioen alde



Eta zerga-ekarpen handiena egiten duten enpresetako bat dela nabarmendu nahi dugu

Kutxabankek 200 milioi euro baino gehiago ordaintzen ditu zergetan eta Euskadin 3.300 milioi euroko diru-bilketari eusten laguntzen dio.

Jasandako nahiz bildutako zergak eta tasak (milioi eurotan)



Iturria: CEPREDE
BPGaren gaineko % gisa kalkulatuta.

Kutxabank euskadiko erakundeei finantzaketa eta bankuko zerbitzuak emateko funtsezko hornitzailea da

1. Epe luzerako harremana du euskadiko erakundeekin eta, gaur egun, **2.000 milioi euro baino gehiago** ditu emandako finantzaketan.
2. **Eusko Jaurlaritzaren aholkulari eta jaulkipenen jartzaile nagusia** Norbolsa bidez (bonu jasagarrien jaulkipena, zor publikoaren trukea ...).
3. Euskadiko **zergen %25 baino gehiago Kutxabanken bidez biltzen dira**.
4. Era berean, **Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan ari gara hainbat hitzarmenetan** (Enpresa Txiki eta Ertainei laguntza ematea, Etxebizitza, Energia Eraginkortasuna ...).



Kutxabank

Euskal Autonomia
Erkidegoaren alde



Erreferentziazko erakundea da partikularren, Enpresa Txiki eta Ertainen eta herri-erakundeen finantzaketan...

Arloa	Bolumena ¹	Kuota	Ranking-a
 Kreditua Guztira	21,7	>%30	1º
 Administrazioak	2,2	>%30	1º
 ETEak eta Autonomoak	2,3	>%20	1º
 Etxebizitza	11,8	>%45	1º
 Kontsumoa	0,6	>%30	1º

Iturria: entitateen urteko memorietatik ateratako datuen kuotari buruzko informazioa. Arriskuan jarritako guztizko diru-kopuruak kreditu-inbertsioa, zor-tresnak eta eratorriak barne hartzen ditu, baina kreditu-erakundeak eta beste finantza-erakunde batzuk kanpoan uzten ditu.

¹ Milaka milioi euro.


... Baita bezeroen baliabideen kudeaketan ere.

	Arloa	Bolumena ¹	Kuota	Ranking-a
	Herri-erakundeen gordailuak	2,2	>%55	1º
	Gainerakoen gordailuak	28,4	>%35	1º
	Helbideratutako Nominak	326.000	>%40	1º
	Helbideratutako Pentsioak	248.000	>%50	1º
	Banakako BGAEak	5,7	>%47	1º
	Inbertsio-fondoak	11,9	>%40	1º

Iturria: sektore publikoari buruzko informazioa. Gordailu, nomina eta inbertsio-fondoei buruz eskuragarri dagoen azken informazioa 2020ko maiatzekoa da, BGAEei dagokienez 2019ko abendukoa da.


¹ Milaka milioi euro.

Kutxabank da euskal finantza-ekosistemaren sustatzaile nagusia



Banka arloan burutzen dugun jarduera osatzeko, Euskadin errotutako finantza-taldeko sozietateak dauzkagu

Gainera, gure lurraldean funtsezkoak diren herri-erakundeen eta elkarten hitzarmenetan parte hartzen dugu



Laburbilduz, Kutxabank funtsezkoa da gure lurraldean inpaktu ekonomikoari dagokionez

	ENPRESA JARDUERA			FINANTZA JARDUERA		
	BPG	ENPLEGUA	ZERGAK	BPG	ENPLEGUA	ZERGAK
Zuzenekoa	668	3.538	201	--	--	--
Zeharkakoa eta eragindakoa	257	3.634	91	7.666	111.105	2.911
GUZTIRA	925	7.172	292	7.666	111.105	2.911

CEPREDE. Ehunekoak BPGaren gainean kalkulatuta daude, biztanleria landunaren gainean kalkulaturako enpleguarena izan ezik.



Kutxabank

Jasangarritasunaren alde
gaude





Finantza-sektorean aitzindariak gara jasangarritasunari dagokionez

**Gure negozio-ereduari esker NBERen Garapen Iraunkorreko
Helburuak betetzearen alde lan egiten dugu (17etatik 13)**



ESG irizpideak barne hartzen ditugu

- 2015ean bonu soziala jaulki zuen Estatuko lehenengo finantza-erakundea gara.
- Energia %100 berriztagarritz hornitzeko epe luzerako hitzarmena sinatu zuen lehenengo finantza-erakundea gara.
- Karbono-aztarna positiboa izan duen lehenengo finantza-erakundea gara, kontsumoa murriztuz eta gure basoak kudeatuz.
- Gizarte Inbertsio Arduratsuan aitzindariak gara, 15 urtetik gorako eskarmentuarekin.
- 13 urteko esperientzia dugu jasangarritasunari buruzko auditoria egiten.



Gure bezeroen inbertsioen 25.000 milioi baino gehiago inbertsio Sozial Arduratsuko irizpideekin kudeatzen ditugu



- 2005 **Kutxabank Fondo Solidarioa**, IF abian jarri genuen. Komisioaren %0,70 banku-fundazioei eta Gureak nahiz Lantegi Batuak enpresa-taldeei dohaintzan ematen diegu.
- NBEren **"Principles For Responsible Investment"** (UNPRI) -2017 printzipioekin bat egiten genuen.
- **Inbertsioen % 100ean ESG printzipioak** txertatu ditugu.
- **UNPRI 2019 auditoria, "A" kalifikazioarekin** (Strategy & Governance).



- NBEren **"Principles For Responsible Investment"** (UNPRI) -2016 printzipioekin bat egiten genuen.
- 2017 **Inbertsio Arduratsuko Fineco Fondoa** (fondo honek erabat betetzen ditu ESG alderdiak).
- 2017tik **"Biscay ESG Global Summit"** ESGri buruzko Estatuko topagunerik handiena **antolatzen du beste batzuekin batera.**
- **ESG Investment and Finance Summer Programme** antolatzen du DBSrekin batera.



- **Eusko Jaurlaritzaren bonu jasagarrien bi jaulkipenen** koordinatzaile globalak – 1.100 miloi €.
- **Herri-erakunde zorroren %100 ESG irizpideen arabera** kudeatuta.



Gure finantzaketa berriak gizarte eta ingurumen arloko proiektuak babesten ditu



>550 milioi € kalifikazio-agentziek ziurtatutako
ESG finantzaketan.



>50 milioi € babes ofizialeko etxebizitzak erosteko.



> 80 milioi € herritarrei zerbitzuak emateko
proiektuetan (bereziki kolektibo ahulei).




>400 milioi € energia berriztagarriko edo trantsizio
energetikoari lotutako proiektuak garatzeko.

Oharra: 2019rako datuak dira.

Ingurumenaren alde gaude erabat eta, urtez urte,
gure karbono-aztarna hobetzen ari gara



Kutxabank erabat neutroa CO2ko emisioetan 2019az geroztik



Iturria: geuk egina.
Tn = Tona.

Gure energia-eraginkortasuna hobetzeko, ekonomia zirkularraren alde egiteko eta gizarte-sentsibilizazioa handitzeko lan egiten dugu



Energia Kontsumoa eta Karbono Azterna. CO₂ko emisio negatiboak, Taldeko instalazioetan energia-kontsumoa etengabe murrizteari esker, ordutegiak, tenperaturak eta instalazioak arautzeko neurriekin eta Euskadin guk kudeatutako 1.000 hektarea baso ingururekin. Espainian epe luzerako energia berriztagarria (PPA) saltzeko lehenengo akordioa Iberdrolarekin egin dugu. Haren bidez, gure energiaren %100 berriztagarria izango dela bermatzen da.

Paper-kontsumoa. Erabilitako paper guztia baso jasangarrietatik dator. Kontsumitutako papera etengabe murrizteko neurriak. Kontsumitutako paper-bolumenaren beherakada jarraitua: orri bikoitzeko inprimaketa, prozesuak berrikustea paperaren ordez PDFak sortzeko, korrespondentzia elektronikoa...

Sentsibilizazioa. Langileak modu aktiboan inplikatzeko ditugu, prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren bidez eta praktika arduratsuak bultzatuz. Ingurumenaren arloko kontzientziazioaren partaide bihurtzen dugu lanean gabiltzan lurraldeko gizarte bera. Herri-tarrentzako ingurumen arloko hezkuntza eta sentsibilizazioan eragina duten programak bultzatzen ditugu.

Produktu "berdeak". Afinitatea erakusteko txartelak ditugu ingurumenaren alde lan egiten duten erakundeekin eta etxebizitzak, ibilgailuak eta etxetresna elektriko ekoeraginkorrak finantzatzeko mailegu berdeak eskaintzen ditugu. Basoak, energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa babesteko proiektuak babesten ditugu, besteak beste. Asko dira ingurumenaren ikuspegitik proiektu iraunkorrak dituzten enpresak, Kutxabanken bezero direnak.

Sortu ginenetik gailendu izan gara gizarte-arloan



Lan-harremanak

- Hitzarmen kolektibo propioa.
- Langileen %95k baino gehiagok kontratu mugagabea dute.
- Trebakuntza-plana.
- Gaitasunen araberako hiztegi eta ebaluazio-prozesua
- Boluntariotza korporatiboa.

Berdintasun plana

- Berdintasun-plana, langileen ordezkariekin sinatua.
- Familia-ardurak eta lana bateratzeko neurriak.
- Gehienak emakumeak (%61) eta emakume zuzendariak >% 50 dira.

Banku Fundazioak

- BBK, Kutxa eta Vital Banku Fundazioekin lankidetzan gabiltza beren jarduerak garatzeko.
- 800 milioi euro baino gehiago dibidendutan Kutxabank eratu zenetik.
- Cajasur Fundazioa eta Convisur, Gizarte Ekintza gure jarduera-eremuetan eskaintzeko.

Babes Ofizialeko Etxebizitzak, Kooperatibak

- Aitzindariak kooperatibak, Babes Ofizialeko Etxebizitzak (VPO) eta Udalek Babestutako Etxebizitzak (VPL) sustatzeko finantzaketan gure jarduera burutzen dugun lurraldeetan, krisiaren aurretik, bitartean eta ondoren.
- Herri-erakundeekin hitzarmenak egin ditugu eta finantzaketa baldintza berezietan eskaini diegu erosle gazteei.
- Ingurumen arloko eraginkortasuneko irizpideak dituzten babes ofizialeko etxebizitza berriak.



Merkatuko praktika onenekin bat datorren governantza-ereduarekin eta gardentasunean hobetzeko bideari eutsiz



- 2007az geroztik **urtero argitaratu eta ikuskatutako memoria**, aditu independente batek (AENOR) egina.
 - **Global Reporting Initiative** erakundearen estandarrak betez
 - **Interes-taldeek garrantzitsutzat jotzen duten informazioa** sartzen dugu.
 - **Taldeko erakunde guztiak** biltzen ditu.
 - **Administrazio Kontseiluak** onartzen du.
- Informazio honetan honako alderdiak daude:
 - **Erakundearen** profila.
 - **Gobernu korporatiboa**.
 - **Etika eta zuzentasuna**.
 - **Jarduera ekonomikoa**.
 - **Ingurumen-jarduna** (kontsumoak, hornitzaileen ingurumen-ebaluazioa, ingurumen-araudia betetzea ...).
 - **Gizarte-jarduna** (langileria, gizarte-ekintza, erosketa arduratsua, hizkuntza-kudeaketa, balio-sorkuntza ...).

Gainera, 2012az geroztik, Kutxabank Nazio Batuen Mundu Itunaren sinatzailea da eta haren betetze-mailari buruzko aldizkako jarraipen-txostena egiten du

Kutxabank

Gizartearen alde





**HEMEN
GAUDE
ZU ETXEAN
EGOTEKO**

Une zailetan, familiei eta enpresei buru belarri laguntzen diegu

Familiei, negozioei eta enpresei finantza-laguntza ematea

- Ahulezian dauden familientzako eta kolektiboentzako zorraren luzamendua.
- ICO eta Elkargi erakundeen maileguak.
- Aurrez emandako maileguak.
- Pentsioen eta langabezia-prestazioaren ordainketa aurreratzea.
- BGAEak eta pentsio-planak erreskatatzeko aukera.
- Ordainketaren aldi baterako barkatzea FSVko alokairuan.
- OK eta Negozio kontuetako baldintzen tratamendu berezia.
- Kreditu-txartelen zordunketa geroratzea.
- Taldeko hornitzaileei ordaintzeko epeak murriztea.

Osasun-larrialdian gizartearekin lankidetzan aritzea

- Kutxazainetan dirua zordunketan komisiorik gabe ateratzea.
- PIN zenbakirik gabeko Contactless sistemaren muga handitzea.
- Urruneko banka eta ordainbideak sustatzea.
- Urruneko kudeaketa pertsonalizatua indartzea.

Kutxabank

Onenak kaudimenean



Ikuskatzaileek, arauemaileek eta merkatu-eragileen arabera finantza-erakunde onena gara

Ikuskatzaileak

Erabakia SREP

	ESP	EUR
PR2	1.	6.

Gardentasun Ariketa

	ESP
CET1	1.

Ebazpena

	ESP	EUR
MREL	2.	2.

Espezialistak



**Best-Performing
Banks**
Spain
Ranking: 1

The Banker aldizkariak (Financial Times) dioenez "The Best Performing Bank in Spain" 2020an da Kutxabank. Hala, kaudimenari, palanka-efektuari eta aktiboen kalitateari dagokienez onena dela nabarmendu du

Oharra: Europa osoan MREL ratio onena duen 2. Erakundea da argitaratutako informazioan oinarrituta.



Inbertsio erabat arduratsua.

Ondoz ondoko bigarren urtez
aitortu dute nazioartean
Kutxabanken inbertsio-estrategia
gizartearekin arduratsua
izateagatik *.

kutxabank



*UNPRI finantza-merkatu jasangarriagoa
sortzeko Nazio Batuek sustatutako
inbertitzaileen nazioarteko sarea da
eta ondoz ondoko bigarren urtez ziurtatu du
Kutxabanken inbertsio-estrategia
gizartearekin arduratsua izateagatik.



[1]



[2]



[3]



[4]

Merkatuak aztertu eta zure lehentasunen arabera hobeto egokitzen diren inbertsioak hautatzen ditugu.

Dauden arrisku-mailak azaltzen dizkizugu.

Zure inbertsioaren bilakaera zaintzen dugu.

Iturriak:

[1] Seigarren urtez jarraian Espainiako erakunderik kaudimentsuena da Kutxabank. Gardentasunari buruz EBAk egindako ariketaren arabera.

[2] Kutxabank da P2R gutxien eskatzen zaion erakundea, Europako Banku Zentralaren SREP ariketaren arabera.

[3] The Banker aldizkariaren arabera.

[4] Expansi3n aldizkariak 2020ko uztailan argitaratutako Inverco txostenaren arabera.

Zorro delegatuen inbertsio-zerbitzuaren emaila: Kutxabank SA. Osaera: Kutxabank Gestion SAU IKESK sozietateak kudeatutako Inbertsio Fondoak. Gordailuzaina: Cecabank SA. (Alcalá 27, 28014 Madril. IFK: A86436011. 2012/11/16an eta 236 zenbakipean izena emanda CNMVren erregistroan).

Folleto osoa eta Inbertsio-fondo bakoitzari buruzko inbertitzailearentzako oinarritzko datuak dakartzan dokumentua CNMVn daude inskribatuta. Gainera, CNMVn, Sozietate Kudeatzailean, bulegoetan eta www.kutxabank.es webgunean jaso daitezke.

